

## **URIBE KOSTAKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAREN EUSKARAREN ERABILERA PLAN ESTRATEGIKOAREN GARAPENERAKO ZERBITZUA EMATEKO ETA, GERO, BERONEN EKINTZAK GARATZEKO (2016-2017) ZERBITZUA EMATEKO ENPRESA HAUTAGAIK EGINDAKO GALDERAK ETA EUSKARA ZERBITZUAK EMANDAKO ERANTZUNAK:**

- 1. Aurretik egindako lanen deskribapena eskura izatea oso baliagarria litzateke, ekimen berdinak ez proposatzeko, eta, egindakoa oinarri hartuta, 2016-17rako proposamena egiteko:**

Orain arte egindako lanak honakoak dira:

- Euskararen erabilerari buruzko diagnostikoa (2013).
- Euskararen Erabilera plana (2013-2017). ONARTUTA DAGO
- Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Hizpideen proposamena (2013). ONARTU GABE DAGO
- Jarraipen batzordea eratzeko proposamena (2013). ONARTU GABE DAGO
- Langileen euskararen erabileraren azterketa komunikatiboa (2015).
- Euskararen Erabilera Planaren diagnostikoa (2015).
- Zenbait langileren trebatze-saioi hasiera eman zitzairen 2015ean.

- 2. Langileak: zenbat langile dauden mankomunitatean, euskararen jakite-maila, sailka datu horiek izango bazenituzte.**

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak 13 langile ditu.

Hauen euskararen jakite-maila jasota dago 2015ean egin zitzairen azterketa komunikatiboan. Datu horien berri emango zaio enpresa esleipendunari.

- 3. Hizkuntza-aholkularitzan, testuen zuzenketan.. zein izaten da bolumena?**

Orain arte ez zaie langileei hizkuntza-aholkularitza zerbitzurik eskaini, honek dakartzan lanekin: zuzenketak...

- 4. Harrera-protokoloa, hizkuntza-irizpideak.. landuta daude? Zein dira?**

Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Hizpideen proposamena landu zen 2013. urtean. Dokumentua onartu gabe dago oraindik. Dokumentu hau enpresa esleipendunari emango zaio.

**5. Hainbat batzordetan parte hartzea aurreikusten da. Zein da horien maiztasuna?  
Erabilera Planaren Jarraipen batzordea, Euskara Zerbitzuarekiko koordinazioa,  
HPSrekin, Alkarbide...**

Erabilera Planaren jarraipen batzordea eratu barik dago oraindik. Proposamena landu zen 2013an, baina eratu gabe dago. Beraz, batzorde hau abian jartzerako orduan erabakiko da batzarren maiztasuna.

Gainerako erakundeekiko harremanari dagokionez, ezin dezakegu maiztasunik zehaztu; lanak berak baldintzatuko baitu hori.